EUSKADIKO ORKESTRA

26 27



Enigma

Guridi Mozart Elgar

4 **ABENDUA**
DICIEMBRE

19:30

Pamplona / Iruña
BALUARTE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO DE EUSKADI
1936-2026

Euskо Jaurlaritzako herri-baltzua
Sociedad pública del Gobierno Vasco

EUSKADIKO ORKESTRA 26 27

KONTZERTINOA
CONCERTINO
Naaman Sluchin

I BIOLINAK / **VIOLINES I**
Xabier de Felipe (1)
Irene Echeveste (4)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
David Carmona
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Óscar López
Gemma Monton
Larraitz Oiartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

II BIOLINAK / **VIOLINES II**
Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (4)
Maddi Arana
Marie Héloïse Arbus
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Ricardo Ruiz
Igor Torre

BIOLAK / **VIOLAS**
Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Maite Abasolo (4)
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Monika Mazur
Sergio Montero
Yann Seyrac

BIOLONTXELOAK
VIOLONCHELOS
Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (4)
Karmele Castillo
Natalia Díaz
Elena Gómez
Misael Lacasta (5)
Jon Larraz
Beatriz Linares
Pascale Michaud

KONTRABAXUAK
CONTRABAJOS
Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Marc Sirera (4)
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent
Guangyao Zhao

FLAUTAK / **FLAUTAS**
Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

OBOEAK / **OBOES**
Óscar Diago (2)
Javier Lecumberri (2)
Carla Aguilar
Pascal Laffont
Hervé Michaud

KLARINETEAK
CLARINETES
Luis Cámara (2)
Juan Andrés Carmona (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

FAGOTAK / **FAGOTES**
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix
Patricia Pazos (5)

TRONPAK / **TROMPAS**
Marcos Cruz Pardeiro (2)
Adrián García Carballo (2)
Álvaro Parrón (3) (5)
Jean-Luc Casteret
Xabier Sarasa
Marianne Tauzin

TRONPETAK / **TROMPETAS**
Alberto Romero (2)
Jesús Castillo
Miguel Echepare

TRONBOIAK / **TROMBONES**
Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Sergio Manteiga
Daniel Ruibal

TUBA
Óscar Abella (2)

TINBALAK ETA PERKUSIOA
TIMBALES Y PERCUSIÓN
Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Igor Arostegi (3)
Juan Luis García

HARPA / **ARPA**
Iván Bragado (2)

(1) **Kontzertinoaren laguntzailea** / Ayuda de concertino
(2) **Bakarlaria** / Solista
(3) **Bakarlari-laguntzailea** / Ayuda de solista
(4) **Lehen tuttia** / Primer tutti
(5) **Aldi baterako kontratazioa** / Contratación temporal

Enigma

Guridi Mozart Elgar



Marzena **Diakun**
Zuzendaria / *Directora*



Elisabeth **Leonskaja**
Pianoa / *Piano*

I

Jesús GURIDI (1886-1961)

Diez melodías vascas [20']

Argitaletxea / Edita: Unión Musical Ediciones

I. Narrativa
II. Amorosa
III. Religiosa
IV. Epitalámica
V. De Ronda
VI. Amorosa
VII. De Ronda
VIII. Danza
IX. Elegíaca
X. Festiva

Wolfgang Amadeus MOZART (1756-1791)

Piano eta orkestrarako 22. Kontzertua mi bemol maiorrean, K.482 [34']

I. Allegro
II. Andante
III. Rondo: Allegro

II

Edward ELGAR (1857-1934)

Enigma Variations, Op.36 [31']

Enigma: Andante
Var.I. (C.A.E.): L'istesso tempo
Var.II. (H.D.S.- P.): Allegro
Var.III. (R.B.T.): Allegretto
Var.IV. (W.M.B.): Allegro di molto
Var.V. (R.P.A.): Moderato
Var.VI. (Ysobel): Andantino
Var.VII. (Troyte): Presto
Var.VIII. (W.N.): Allegretto
Var.IX. (Nimrod): Moderato
Var.X. (Dorabella): Intermezzo: Allegretto
Var.XI. (G.R.S.): Allegro di molto
Var.XII. (B.G.N.): Andante
Var.XIII. (***): Romanza: Moderato
Var.XIV. (E.D.U.): Finale: Allegro

Babeslea
Patrocina
eitb

Enigma: *Guridi / Mozart / Elgar*

Gaur, Viena hiriarekin lotura duten bi interpretatzaile handi ditu lagun Euskadiko Orkestrak. Batetik, **Marzena Diakun** zuzendari poloniarra, Austriako hiriburuan ikasia eta Pragako Udaberria eta Fitelberg lehiaketetan, besteak beste, saritua. Eta, harekin batera, **Elisabeth Leonskaja**, 1978az geroztik Vienan bizi dena eta gure garaiko pianojolerik ospetsuenetako bat dena. Moskun Jakob Milsteinekin ikasia eta Sviatoslav Richterren lankide estua izana, Leonskaja Errusiako pianismo handiaren oinordekoa da eta, hala, munduko orkestrarik onenekin aritu da, Kurt Masur, Sir Colin Davis, Kurt Sanderling edo Yuri Temirkanov bezalako zuzendarien gidaritzapean. Mundu-mailako erreferentea da Vienako klasikoen interpretazioan, Mozartenean, esaterako. Haren musika interpretatuko du gure Denboraldira itzultzean, 2015eko maiatzean egin zuen azken bisitaren ondoren.

1936an Eusko Jaurlaritza sortu zeneko 90. urteurrenaren omenez, Euskadiko Orkestrak **Jesus Guridi**ren ***Hamar euskal melodia*** obrarekin emango dio hasiera kontzertuari. Gasteizko konpositorea euskal kulturako pertsonarik ospetsuenetako bat izan zen garai hartan eta Euzko Pizkundearen aurreko hamarkadetan.

Lehen Eusko Jaurlaritza gerra-giroan (Espainiako Gerra Zibilean) eratu zen bezala, Guridiren obra ere, 1941eko abenduaren 12an estreinatua, Pearl Harborren aurkako erasoa gertatu eta bost egunera plazaratu zen. Madrilgo Monumental antzokian egin zuen aurkezpenaren harira, estreinaldiko zuzendari Enrique Jordak —aurrerago Euskadiko Orkestraren lehen zuzendari titular eta ordutik ohorezko zuzendari izango zenak— honela esan zuen: «Liadoven *Errusiako zortzi herri-kantuak* bezalako zerbait dira. Baina material tematikoa hobea da». Guridik bazuen esperientzia herri-ondareko melodiak moldatzen, eta haietako zortzi lehenago ere erabiliak zituen *Euskal folkloreko hogeita bi abesti* obran. Hala ere, ohartarazi zuen hemen ez zela folklorea soilik lantzen, konpositorea bera baitzen «bere arima komunikatzen duena, bere hats emozionala emanez». Emaitza hamar harribitxi txiki dira, kutsu lirikoa dutenak eta jai-girokoak, Gasteizko konpositorearen beste obra sinfoniko batzuekin alderatuta arinak, baina kolore eta irudimen orkestral apartekoak, eta euskal musika nazionalaren inguruko zenbait ideal modu eredugarrian islatzen dituzten pasarte malenkoniatsuez hornituak.

Wolfgang Amadeus Mozartek 1785eko abenduan konposatu zuen ***Pianorako 22. Kontzertua***, *Figaroren ezteiak* lantzen ari zen bitartean. Bakarlari gisa egiten zuen jarduerarako pentsatua zegoen, jarduera hori funtsezkoa baitzen Vienako bere bizitza profesionalean, garai hartan harpidetza bidezko hainbat kontzertu antolatzen ari baitzen (eta haietan bildutako diruaren zati handi bat beretzat hartuko zuen). Aurreko bi kontzertuen ospea lortu ez badu ere —*20. Kontzertu* (Beethoven liluratzen zuena) eta *21.a*, «Elvira Madigan» ospetsua—, *22. Kontzertua* obra bikaina da, eta Mozartek hainbat berrikuntza sartu zituen bertan: klarineteak erabiltzea, lehen aldiz baliatu baitzituen pianorako kontzertu batean, oboeen ordez, teklatuaren eta zurezko haize-instrumentuen arteko elkarrizketa berria proposatzeko; eta soinu sendoagoko pianismoa ere bai, hain zuzen ere urte haietan instrumentuaren eraikuntzan gertatzen ari ziren aurrerapenei erantzuten ziena.

Litekeena da Mozartek kontzertua konposatzen amaitu eta astebete eskasera estreinatu izana, 1785eko abenduaren 23an, Vienako Burgtheater antzokian Tonkunstler-Societat elkarteak antolatutako ongintzazko emanaldi batean. Leopold Mozartek, 1786ko urtarrilaren 13ko gutun batean, Nannerl alabari jakinarazi zion haren nebak mi bemol maiorreko kontzertu berri bat konposatu zuela, eta hartan «*Andantea* errepikatu behar izan zuela», «nahiko ezohikotzat» jotzen zuen gertakaria. Izan ere,

publikoak, hasiera indartsuaren edo amaiera distiratsuaren ordez, mugimendu geldoa bereziki estimatu izanak erakusten du zeinen apartekoa den mugimendu hori. Hasierako *Allegroa*ren ondoren, zeinak tankera zeremoniala eta ideiaz gainezka dagoen pianorako idazkera uztartzen baititu, *Andantea*, do minorren, sordinadun hari-instrumentuen aiene batekin hasten da, eta hiru bariazio garatzen ditu, zurezko haize-instrumentuei protagonismoa ematen dieten modu maiorreko pasarteekin tartekatuta. Amaierako *Allegroa*k ehiza-oihartzunak dituen *rondo* baten indarra hartzen du, baina mugimenduaren erdialdean ustekabean eten egiten da *Andantino cantabile* bat agertzean. Tarteki liriko zoragarria da, dinamismoa berreskuratu eta amaierarantz oldartu aurretik.

1898ko gau batean, biolin-eskolak ematen egun luzea igaro ondoren etxera iritsi zenean, **Edward Elgar** pianoan eseri eta teklatuan inprobisatzen hasi zen, lasai, irudimenari hegan egiten utziz. Halako batean, Alicek, emazteak, jo berri zuen doinuetako bat berriro jotzeko eskatu zion. Elgarrek behin eta berriz jo zuen doinu hura, errepikapen bakoitzean bere lagun minenek, konposatzeko gaitasuna izan balute, emango lioketen izaera imitatuz. Alicek eta biek barre ugari egin zuten txantxa harekin, baina hurbilekoen nortasuna islatuko zuten erretratu musikalen sail bat sortzeko ideia errotua zen ordurako konpositorearen buruan. Horren emaitza ***Enigma bariazioak*** izango ziren, hurrengo urteko otsailean estreinatuak.

Jatorrizko gaiaren ondorengo hamalau bariazioek Elgarren lagunen izaeraren edo lanbidearen alderdi jakin batzuk nabarmentzen dituzte. Bigarrenak, esaterako, Hew David Steuart-Powelli eskainiak —Elgarrekin ganbera-musika interpretatzeko elkartu ohi zen pianojole amateurra—, jotzen hasi aurretik teklatuan egiten zuen hatzen beroketa-ariketa berezia islatzen du. Laugarrenak William Meath Baker irudikatzen du, inguruko lur-jabe bat, Elgarren arabera «nahiko kementsu mintzatzen zena». Seigarrena Isabel Fitoni eskainia dago, Elgarren biola-ikasleari, eta instrumentu hori da bariazioaren protagonista. Zazpigarrenak, berriz, Elgarren lagunik onenetako baten, Arthur Troyte Griffit arkitektoaren, pianoa jotzeko trebetasun falta gogotsua islatzen du.

Bariazio guztien artean ospetsuena, Nimrod, Elgarrek Augustus J. Jaeger bere editorearekin bizitako pasarte batean inspiratuta dago, konposatzeari uztea pentsatzen ari zen depresioaldi batean Jaegerrek bisitatu zuenean gertatutakoa. Jaegerrek Beethoveni buruz eta hark zailtasun guztiak gaindituz musika konposatzen jarraitzeko erakutsi zuen sendotasunari buruz hitz egin zion. Jarraian, Beethovenen *Pianorako 8. Sonata*ren *Adagioa*ren melodia ahopeka kantatu zuen, *Nimrod* bariazioaren hasierako notetan antzeman daitekeena.

Hamabigarren bariazioak Hew David Steuart-Powell (*2. bariazioa*) ere kide zuen hirukoteko beste kidea irudikatzen du, Basil G. Nevinson biolontxelojolea, zeinak geroago Elgar inspiratuko baitzuen bere *Biolontxelorako Kontzertu* ospetsua konposatzeko. Instrumentu hori da nagusi bariazioan, obrako beste pasarte lirikorik ederrenetako batean. Azkenaurreko bariazioa Lady Mary Lygoni eskainia dago, Elgarren musikaren defendatzailea zen aristokratari. Hark ezin izan zion haren inizialak sartzeko baimenik eman, Australiara bidean itsasontzian zihoalako —hortik asteriskoak—. Elgarrek Mendelssohnen *Itsaso barea eta bidaia oparoa* oberturaren aipamen musikal bat sartzen du klarinetean. Azkenik, *14. bariazioa*n, *E.D.U.,* Elgarrek bere burua irudikatzen du, baina lehen bariazioko —Alice emazteari eskainitakoa— eta *Nimrod*eko —bere editoreari eskainitakoa— pasarteak hartuz. Bi pertsona horiek «konpositorearen bizitzan eta artean eragin handia izan zuten bi pertsona» zirela aitortzen zuen.

MIKEL CHAMIZO

Enigma: *Guridi / Mozart / Elgar*

Euskadiko Orkestra está hoy acompañada de dos grandes intérpretes vinculadas a la ciudad de Viena. Por un lado, la directora polaca **Marzena Diakun**, formada en la capital austriaca y premiada en concursos como el Primavera de Praga y el Fitelberg. Y junto a ella, **Elisabeth Leonskaja**, residente en Viena desde 1978 y una de las más renombradas pianistas de nuestro tiempo. Formada en Moscú con Jakob Milstein y cercana colaboradora de Sviatoslav Richter, Leonskaja es heredera del gran pianismo ruso y como tal ha actuado con las mejores orquestas del mundo bajo la dirección de directores como Kurt Masur, Sir Colin Davis, Kurt Sanderling o Yuri Temirkanov. Es una referencia mundial en los clásicos vieneses, como Mozart, cuya música interpretará en su regreso a nuestra Temporada tras su última visita en mayo de 2015.

En homenaje al 90 aniversario de la creación del Gobierno Vasco en 1936, Euskadiko Orkestra comienza la velada con las ***Diez melodías vascas*** de **Jesús Guridi**, compositor gasteiztarra que fue una de las figuras culturales vascas más prestigiosas en aquella época y en las décadas anteriores al Renacimiento Cultural Vasco-Euzko Pizkundea.

Al igual que el primer Gobierno Vasco se formó en un ambiente bélico (la Guerra Civil española), la creación de Guridi, estrenada el 12 de diciembre de 1941, vio la luz cinco días después del ataque a Pearl Harbor. Con motivo de su presentación en el teatro Monumental de Madrid, Enrique Jordá, director del estreno—se convertiría después en el primer director musical de Euskadiko Orkestra y desde entonces en director honorífico—, dijo que eran «algo así como las *Ocho canciones populares rusas* de Liadov. Pero el material temático es mejor». Guridi ya tenía experiencia adaptando melodías del acervo popular y ocho de estas las había empleado con anterioridad en sus *Veintidós canciones del folklore vasco*. Advierte, sin embargo, que aquí no se trata solo de folclore, sino que es el compositor quien «comunica su alma infundiéndole su aliento emocional». El resultado son diez pequeñas joyas líricas y festivas, de peso ligero en comparación con otras obras sinfónicas del vitoriano pero de extraordinario colorido e imaginación orquestal, y con páginas melancólicas que reflejan modélicamente algunos ideales en torno a la música nacional vasca.

Wolfgang Amadeus Mozart compuso el ***Concierto para piano n°22*** en diciembre de 1785, mientras trabajaba en *Las bodas de Fígaro*. Estaba destinado a su propia actividad como solista, que era parte esencial de su vida profesional en Viena, ya que en aquel momento estaba organizando varios conciertos por suscripción (en los que él se llevaría gran parte de la recaudación). Aunque no haya alcanzado la celebridad de los dos conciertos previos, el *n°20 en re menor* (que apasionaba a Beethoven) y el *n°21*, el famoso «Elvira Madigan», el *Concierto n°22* no deja de ser una obra magnífica en la que Mozart incluyó varias novedades: el uso de clarinetes, que empleaba por primera vez en un concierto para piano, sustituyendo a los oboes para proponer un nuevo diálogo entre el teclado y las maderas; y también un pianismo de sonido más contundente, que respondería a los avances en la construcción del instrumento que se estaban produciendo precisamente en aquellos años.

Es probable que Mozart estrenase el concierto apenas una semana después de terminarlo, el 23 de diciembre de 1785, durante una velada benéfica de la Tonkünstler-Societät en el Burgtheater de Viena. Leopold Mozart, en una carta del 13 de enero de 1786, le transmitía a su hija Nannerl que su hermano había compuesto un nuevo concierto en mi bemol en el que «tuvo que repetir el *Andante*», circunstancia que calificaba de «algo bastante insólito». Efectivamente, que el público valorase sobre todo la página lenta, en lugar del poderoso inicio o el brillante desenlace, da testimonio de lo extraordinario que es este movimiento. Tras el *Allegro* inicial, que combina un porte ceremonial con una escritura para el piano rebosante de ideas, el *Andante*, en do menor, comienza con un lamento de las cuerdas con sordina y despliega tres variaciones,

intercaladas con episodios en modo mayor que conceden protagonismo a las maderas. El *Allegro* final adopta el impulso de un rondó con reminiscencias de caza, pero se suspende inesperadamente a mitad de movimiento con la aparición de un *Andantino cantabile*, un delicioso paréntesis lírico antes de recuperar el dinamismo y precipitarse hacia el final.

Una noche de 1898, al llegar a casa tras un largo día impartiendo clases de violín, **Edward Elgar** se sentó al piano y comenzó a improvisar sobre el teclado, relajado, fantaseando. En un momento dado, Alice, su esposa, le pidió que repitiera para ella una de las melodías que acaba de tocar. Elgar la retomó, una y otra vez, imitando en cada repetición el carácter que le darían sus amigos más cercanos si tuvieran la capacidad de componer. Alice y él se rieron mucho con esta chanza, pero la idea de una serie de retratos musicales en los que plasmar la personalidad de sus allegados se había instalado ya en la mente del compositor. El fruto serían las ***Variaciones enigma***, estrenadas en febrero del año siguiente.

Las catorce variaciones que siguen al tema original inciden en aspectos concretos del carácter o la profesión de los amigos de Elgar. La segunda, por ejemplo, dedicada a Hew David Steuart-Powell, un pianista amateur que solía unirse a Elgar para interpretar música de cámara, refleja el singular calentamiento de dedos que practicaba sobre el teclado antes de comenzar a tocar. La cuarta retrata a William Meath Baker, un terrateniente de la zona, que según Elgar «se expresaba de forma bastante enérgica». La sexta, dedicada a Isabel Fiton, alumna de viola de Elgar, tiene a este instrumento como protagonista de la variación. La séptima, por su parte, refleja la entusiasta incompetencia al piano de uno de los mejores amigos de Elgar, el arquitecto Arthur Troyte Griffit.

La más famosa de las variaciones, *Nimrod*, se inspira en una escena que Elgar vivió con Augustus J. Jaeger, su editor, cuando este le visitó durante una depresión en la que se estaba planteando abandonar la composición. Jaeger le habló de Beethoven y de su fortaleza para seguir escribiendo música, sobreponiéndose a todas las dificultades. Acto seguido, tarareó la melodía del *Adagio* de la *Sonata para piano n.° 8* de Beethoven, que se adivina en las notas iniciales de *Nimrod*.

La variación número doce retrata al otro componente del trío al que también pertenecía Hew David Steuart-Powell (*Variación 2*), el violonchelista Basil G. Nevinson, quien más adelante inspiraría a Elgar para la composición de su célebre *Concierto para violonchelo*. Es este instrumento el que domina la variación, en otro de los pasajes líricos más bellos de la obra. La penúltima variación está dedicada a Lady Mary Lygon, una aristócrata defensora de la música de Elgar, que no pudo darle el permiso para incluir sus iniciales al hallarse en barco de camino a Australia —de ahí los asteriscos—. Elgar introduce en el clarinete una cita de la obertura *Mar en calma y próspero viaje*, de Mendelssohn. Por último, en la *Variación 14, E.D.U*, Elgar se retrata a sí mismo, pero lo hace tomando fragmentos de la primera variación, su esposa Alice, y de *Nimrod*, su editor, a quienes reconocía como «dos grandes influencias en la vida y el arte del compositor».

MIKEL CHAMIZO

HURRENGO KONTZERTU SINFONIKOA / *PRÓXIMO CONCIERTO SINFÓNICO*

Bach *Inspirazio*

urtarrila 13 enero / **19:30**

SARRERAK / **ENTRADAS**

10€ < 41€

euskadikoorkestra.eus
baluarte.com
Leihatila - Taquilla

AZKEN ORDU GAZTEA! 10€

EITB MUSIKAREKIN

eitb EUSKADIKO ORKESTRA

